

ERABILERA PLANA

erreniega I.P.

ZIZUR NAGUSIA



2005-2006 IKASTURTEA

Orain dela hogeita bost urte inguru eta gizartearen presioari esker, Eskola Publikoan lehendabiziko euskal lerroak sortu ziren.

Gizarteak bultzatu duen kulturaren berreskuratze eta hizkuntzaren normalizazioranzko bide honetan, ezinbesteko ardatz bilakatu da euskal lerroek eginiko apustua, heziketa integrala, gurea eta kalitatezkoaren aldekoa, alegia.

Urte hauei egin dakiekeen balorazioa baikorra dela esan genezake. Alde batetik, euskara hizkuntza kultu bezala garatu eta ikas-irakas prozesuko tresna bilakatu delako eta bestetik prozesu honetan benetako kalitatea lortu baita. Honen guztiaren lekuko: murgiltze prozesuak izan duen arrakasta gurasoen aldetik eskolatze garaian eta Unibertsitatean sartu aurretik egiten den azterketetako emaitzak (selektibitatea...) .

Hala ere ezin da esan lana amaitu denik. Gaur egungo egoera soziolinguistiko orokorrak hala erakusten du behinik behin; hizkuntzak, geure kulturak, eta ikasleriaren garapen orokorrak jasaten duten egoeran hainbat hutsune nabari baitira.

Segidan aipatzen diren bi arlo hauetan zenbait erabaki hartuz, hutsarte hauek gainditu nahi ditugu:

1.- Hizkuntzari dagokionez, euskara, ikas-irakas prozesuko hizkuntza eta partaide guztien arteko komunikazio hizkuntza izatea lortu behar dugu (batez ere ikasleengan, hauen artean hutsunerik handienak ageri baitira), funtzio berriak garatuz ikastetxeko hizkuntz propioa bilaka dadin.

2.- Irakaskuntzari dagokienez, berau integrala izatea dugu helburu, hau da, ikasleek garapen pertsonal nahiz kultural osoa lor dezatela.

1984-85 Ikasturtean Zizurko guraso talde batek bultzatua, 3 urteko bederatzi ikasleekin euskarazko irakaskuntza gela bat ireki zen Zizurko udalaren babesean. Gurasoek gela hau hiru ikasturtez mantendu zuten dirua udaletik eta beraiek antolatutako ekintzetatik lortuz.

1987-88 ikasturtean Euskararen legearen ondorioz euskarazko irakaskuntza baimendu zen eta ofizialtasuna eman zitzaion. Garai hartan Zizurko populazioa hazten zihoan. Gurasoak irakaskuntza publikoa aukeratzen joan ziren. Zizurko eskualdeko ikastetxe publikoan hiru eredu eskaintzen ziren: A, D, G. Nafarroako beste herrietan bezala, Zizurren ere, euskarazko irakaskuntza (D eredia) gero eta gehiago zabaltzen hasi zen. Alde batetik, euskararen ezagutza bermatzen zuen bakarria zelako; bestetik, gurasoen motibazioa eta irakasleen konpromisoa zela medio.

1999-00 ikasturtean Zizurko eskualdeko ikastetxea handiegia zen 1200 ikasle inguruk osatzen baitzuten. Horri irtenbide bat eman nahian, Nafar Gobernuak ikastetxea ereduetan banatzea erabaki zuen. Horrela, eraikuntza gorrian kokatzen zen eredia (D) ikastetxe propio bihurtu zen.

2000-01 ikasturtean sortutako ikastetxeari ERRENIEGA I.P. deitu genion. Eraikuntzaren zabalkuntza ere urte honetan burutu zen. Urte hauetan ikastetxearen hirugarren lerroa finkatu da, seigarren maila arte. Honetaz gain, zutabeak ezartzeko lan handia egin da antolamenduan eta maila pedagogikoan. Zenbait proiektu ere garatu dira: ikus-entzunezkoa, informatika, irakurketa plana, barne araudia,...

2004-05 ikasturtean beste gai batzuen artean, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren berrikuntzan murgildu ginen. Gure nortasun ildoak azpimarratu nahian ikastetxearen logotipoa eta Web orria sortu genituen. Honetaz gain, euskarari lehentasuna eman genion proiektu honetan. Euskara gure ardatza izango baita Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua garatu ahal izateko (euskara, gaztelania, ingelera).

2005-06 ikasturtean Hezkuntza Proiektuaren garapena jarraituz, ikasturte honetan Erabilera Plana idatzi eta klaustro eta eskola-kontseiluan onartuko dugu. Beste aldetik "Etxetik hasi behar delako" gurasoen artean euskararen erabilera sustatzeko kanpaina indarrean jarriko da.

HELBURU OROKORRAK

- ↻ Euskara ikastetxearen hizkuntza propioa izatea nahi dugu, bai ikas-irakas hizkuntza baita harremanetarako hizkuntza ere, gure kultura transmititzeko eta garatzeko helburupean.
- ↻ Erreniega I.P.n elkarbizitzen diren hiru hizkuntzen trataera bateratua gure Hizkuntza Proiektuan zehaztea.
- ↻ Hizkuntza idatziaren konpetentzien garapenak duen garrantzia zalantzatu gabe, ahozkotasuna sustatzea, bermatzea eta garatzea nahi dugu.
- ↻ Hezkuntza komunitate eskolarra osatzen dituzten estamentu guztietan euskararen erabilera sustatzea.

DOKUMENTAZIOA

Barruko erabilerarako ekoizten den dokumentazio guztia euskaraz eginen da. Beste alde, gure ingurune soziolinguistikoa kontuan harturik, kanpo harremanetarako direnak, gehienetan elebidunak izango dira, euskarari lehentasuna emanez.

- 🌀 Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Kurrikulu Proiektua, Antolakuntza eta Jarduera Araudia, ikasturteko plana, memoria eta abarreko txostenak euskaraz eginen dira, eta horrela aurkeztuko dira administrazioaren aurrean. Beharren arabera, ale elebidunak izanen dira eskura gai.
- 🌀 Klaustro eta batzorde guztietako aktak euskaraz eginen dira.
- 🌀 Eskolako inprimaki eta agiriak bi hizkuntzatan idatzita egonen dira, euskarari lehentasuna emanez: ikasleen gurasoei zuzenduta dauden matrikula inprimakiak, buletinak, ziurtagiriak, deialdiak....
- 🌀 Tanpoiak, zigiluak logotipoa eta bulegoko materiala euskaraz eginen dira.
- 🌀 Web gunea formatu elebidun bakarrean aurkeztuko da.
- 🌀 Eskolako aldizkaria euskaraz argitaratuko da.
- 🌀 Eskolak gela bakoitzeko familia euskaldunen errolda gaurkotuko du urtero, familia horiekiko harreman guztiak, idatziak eta ahozkoak, euskaraz egin ahal izateko.
- 🌀 Erreniega I.P.k berarekin harremanak dituen edozein pertsona eta erakunde euskaraz bidera daitezen bultzatuko du.

ERROTULAZIOA

- 🌀 Eskolan dauden errotulu guztiak euskaraz idatzita egonen dira.

MATERIALA ETA BALIABI DEAK

- ☞ Programazioak, azterketak, apunteak, testu liburuak, gidaliburuak eta ikaslearekin erabiltzen diren material guztiak euskara hutsean erabiliko dira.
- ☞ Liburutegiaren funtzionamendurako araudi, katalogo, zerrenda, fitxa ohar eta etiketa guztiak euskaraz eginen dira.
- ☞ Euskaraz argitaratzen diren liburuak, aldizkariak, eta ikus-entzunezko eta informatikako materialak, egokiak diren heinean, eskolak eskuratuko ditu.
- ☞ Bestelako hizkuntzen arloak (gaztelera, ingelesa) emateko lagungarriak eta egokiak diren liburuak liburutegian egonen dira .

ESTAMENTUAK

- ☞ Klaustroko irakasle guztiak euskaldunak izanen dira, eta haien bizitzako jarduera guztietan euskaraz aritzeko gaitasuna izanen dute, horretarako beharrezkoak diren erregistro mota ezberdinak menperatuz. Era berean, irakasleak euskararen aldeko jarreren bultzatzaile eta euskal kulturaren hedatzaileak izanen dira.
- ☞ Irakasleek, beren etengabeko formazioaren barrenean, hizkuntzaren gaurkotze eta sakontzeari garrantzi handia emanen diote. Ikastetxeak urtero irakasleen beharrei erantzungo dieten ikastaroak antolatuko ditu, eta kanpoan antolatzen diren bestelako ikastaroetan parte hartzera animatu, bultzatu, proposatu eta gonbidatuko ditu.
- ☞ Administrazio eta zerbitzuetako langileek, nahiz ekintza osagarrietakoek, haien lana euskaraz ongi egiteko behar den hizkuntza maila izanen dute. Hurrekin harreman zuzenak dituztenek, hizkuntzaren erregistro ez formalak jakingo dituzte. Hizkuntza eredu ezberdinak elkartzen direnean (garraioa adibidez) ahal den neurrian euskalduna edota elebiduna izango da.
- ☞ Irakasleak eta bestelako langileak, hala haien artean, nola ikasleekin, beti euskaraz mintzatuko dira, bai ikastetxearen areto guztietan bai kanpoan ere, ikasleak etengabe euskararen erabilerara bultzatuz.
- ☞ Gurasoei zuzendutako "Etxetik hasi behar delako" kanpainan euskara sustatzeko ekintzak bultzatuko dira.
- ☞ Era berean, ikastetxeak, gurasoak motibatu eta jabeaziko ditu, haurren eskolaz kanpoko jardueretan, euskarazko harreman sarea ahalik eta aberatsena lortzeak duen garrantziaz.

ESKOLAKO JARDUERAK

- ↻ Eskolak kudeatzen dituen zerbitzuak euskaraz izango dira:
 - Hurtzaindegia, "Hots gurasoak" guraso elkarteak antolatua.
 - Jantokia, janaria ekartzen duen enpresak zaintzaile eta sukaldari euskaldunak kontratatzeke konpromisoa hartzen du. Era berean, eguerdian antolatzen diren ekintzak: patiokoak, mahai jokoak, informatika, bideo saioak... euskaraz garatuko dira.
- ↻ Ateraldietan eta kanpaldietan euskararen erabilera sustatuko da.
- ↻ "Euskaraz Mintza" programan jostaldietan monitore bat arituko da H.H. eta L.H.ko ikasleekin jokoak euskaraz irakasten. Seigarren mailako ikasleekin Herri Kirola egingo da eta Sortzenek eskola publikoaren jai egunean antolatzen duen txapelketan parte hartuko dute.
- ↻ Seigarren mailakoek, Euskara Zerbitzuak Bertsolaritza Elkartearekin batera antolatzen dituen bertsolaritza saioetan parte hartuko dute.
- ↻ Eskolak, Irakurketa Planaren barruan, FIRA enpresarekin 1., 3. eta 5.mailatan Euskal idazleekin topaketak antolatzen ditu.
- ↻ KORRIKA antolatzen den urteetan eskolak ere "KORRIKA txikia" egiten du.
- ↻ Ikasturtean zehar jai batzordeak hainbat jai antolatzen ditu: Olentzero, Santa Ageda, Inauteriak, kultur astea, ikasturte bukaerako jaia. Horien helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea eta euskal kultura zabaltzea izanen da.

Erreniega I.P.k ikasleen euskalduntze prozesua sendotzeko, eskolaz kanpo ere, erakunde ezberdinekin harremana bultzatuko du.

- ↪ Kultur Patronatua: eskola ordutegian, erakusketak, emanaldiak euskaraz eta euskal idazleekin topaketak egiteko diru laguntza.
- ↪ Gaztetxea: Korporazio txikia, etxeko lanetan laguntza.
- ↪ Ludoteka: eskola bere eskaintzaren bitartekaria da.
- ↪ Kirol eta kultur patronatuak: eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz eskaintzen ditu.
- ↪ Euskara zerbitzua: euskarazko produktuen katalogoa, Olentzerorako oparitxoak, egutegiak eta establezimendu euskaldunen zerrenda, matrikularako kanpina, euskara ikasteko gurasoen taldeak (AEK), "Euskaraz Mintza" programarako diru laguntza.

MATERIAL ELEBIDUNA

Zerbitzuko zuzendari agurgarri hori:

Eskerrik asko bidali diguzun materialarengatik: "XXXXX" delakoa. Dena den, D ereduko eskola garela kontuan harturik ezin izango dugu erabili. Beraz, euskarazko aleak jaso nahi genituzke.

Hemendik aurrera horrela izango delakoan jaso ezazu gure agurra,

Zizur Nagusian, 2006ko martxoaren 27an

MATERIAL BILINGÜE

A la atención de la directora del servicio:

Le agradecemos el material enviado: "XXXXX". Sin embargo, teniendo en cuenta que somos un centro de modelo D, no podremos utilizar este material. Por lo tanto, nos gustaría recibirlo también en euskera.

Agradeciendo de antemano su colaboración reciba un saludo,

Zizur Mayor, 27 de marzo de 2006

Zuzendaria / Directora